

MUSIKA EUSKAL HERRIAN. 1968-2018

MUSIKA EUSKAL HERRIAN. 1968-2018

Erakusketako areto honek Euskal Herriko artistek mende erdiz sortutako eta argitaratutako musika ekoizpenaren kronologia proposatzen du. Erakusketak nagusiki euskarri fonografikoak erakusten ditu, diskoari arreta berezia eskainiz, formatu honek, bere osotasunean, musika adierazpenen bilakaera estetikoak, teknikoak eta diskurtsiboak kontatzeko duen gaitasunagatik, eta, ondorioz, irudikatutako denbora tartean behintzat, musika hedatzeko gailu gisara izan duen garrantzi hegemonikoagatik. Diskoen aukeraketa egiterako orduan kontuan hartutako irizpideek ez dute soilik artista edo lan hauek izan zuten edo eduki ahal izan zuten garrantzi soziala edo arrakasta azpimarratu nahi. Arreta berezia eskaini nahi izan diogu aukeratutako lanek forma eta lengoia artistiko berritzaileak adierazteko bide berriak irekitzeko orduan izan zuten garrantziari, batzuetan musikaren kontzeptua bera soinua erabiltzen duten bestelako alor artistikoe-tara zabalduz, hala nola poesia fonetikora edo soinu-artera.

Euskal Herriko musikaren arrakasta ezagunen bilduma baino, euskal musikak gaur dena izatera iritsi arte hartu dituen bideak, askotan ezezagunak edo bihurtuz beterikoak, ezagutzeko denbora bidai bat egitea proposatzen dugu. Beharbada balio sozialaren ikuspegitik bere momentu gorenean bizi ez badu ere, musikak, alor zabal eta sortzaile den heinean, Euskal Herriak nola egiten duen soinu baino, zehaztasun harrigarriarekin kulturalki Euskal Herria zer den islatzeko duen gaitasuna azpimarratu nahi izan dugu. Laburbilduz, erakusketa hau gure musika gustuen bilakaera ulertzeko gonbidapena den bezala, azken 50 urteotan euskal gizarteak sozio-kulturalki izan duen bilakaera, nahi bada modu kaotiko, bapateko eta ahozkoan, ezagutzeko parada da.

“Gizarte bakoitza bere zaratengatik epaitu beharko genuke”, idatzi zuen Jacques Attali ekonomista eta idazle frantziarrak, eta nahiz eta epaitzea ez den ez gure lana ezta gure helburua ere, merezi du collage moduko potreta hau ikuspegi horretatik entzutea, beharbada gure islak bere-gure musiketan islatuta entzungo ditugu.

1968-1977

Munduko hainbat herrialde astindu zituzten mugimendu sozialen bultzakadaren eta gero eta ageriagoa zen Francoren erregimenaren gainbeheraren aurrean, euskal kulturaren modernizazio prozesuak pausu erraldoiak eman zituen. Garai berrien erritmoan, musikak balio sozial handia erdietsi zuen, zetozen aldaketen adierazpide-ahots nagusi bihurtuz. Erakundeek ezarritako zentsura gogorren mugak saihesteko abilezia bereziarekin, euskal musika modernoak lehen pausu sendoak eman zituen, hasieran folk eta pop itxuran, baina laster bestelako forma artistiko berriak hartuz: soinu-zuko poesia, jazz musika, esperimentazio elektronikoa, edo, bere bertsio herrikoienetan, rock edo prog-rock estiloak. Aldi berean, hainbat hamarkadatan “susmopean” isildutako hainbat eta hainbat obra klasiko ezagutzera ematen hasi ziren bitartean, “onartutako” kantagintzaren izar zaharren eta momentuko modek irekitako pitzadurak profita-tuz bizitutako pop zirriborroen mundu zaharkitua itzaltzen joan zen. Egoera horretan, tradizioetik nahiz muturreko abangoardiatik berdin edanez hizkuntza berriak sortu zituzten Mikel Laboa eta Joxean Artze bezalako artistak erreferente bihurtu ziren, etorriko ziren hamarkadetan Euskal Herriko hainbat artista eta musikari belaunaldi-ren eragin eta inspirazio iturri nagusi bihurtuz.

Ez dok amairuren *Baga, Biga, Higa* ikuskizuna aurkezten da. (1970)

Iruñeko Topaketak ospatzen dira. (1972)

Abangoardiako musikaren lehenbiziko jaialdia San Telmo Museoa, Donostia. (1973)

Mocedades taldeak Eurovisión jaialdian parte hartzen du. (1973)

Musikaste jaialdiaren lehen edizioa Erreterian (Gipuzkoa). (1973)

Donostiako Jazz Jaialdia, gerora Jazzaldia deitua, modernizatu egiten da.

Enkoari erakundeak antolatutako Soinu Topaketak, azkenean bertan behera geratuak. (1977)

1978-1987

Diktaduraren amaieraren ondotik, baina oraindik Trantsizio garaia ezaugarri izan ziren ezegonkortasun politiko sozial eta ekonomiaren pean, Euskal Herriko musika ekoizpena azkar zabaldu zen. 60ko hamarkadako abangoardiako taldeen trakzio-indarra bi ildo nagusitan banatu zen: bata, euskal kantutegi tradizionalaren berreskuratzea lehenetsi zuena, bestea, aldiz, euskal identitatearen berrinterpretazioan oinarritutakoa, estetikorik are erradikalagoa eta hein handi batean Jorge Oteizaren ideiek nabarmen eragindakoa. Harreman politiko eta komertzial berezi batean elkarrekin bizi ziren bi ildo nagusiak eragina galtzen hasi ziren poliki-poliki, 80ko hamarkadaren hasieran punk mugimendua indarrez sartu zen arte. Ezustean, garaia gordintasunera egokitutako musika eszena berri, basati, konformagaitz, nagusiki hiritar eta mezu nihilistaz betetakoa lehertu zen hiri nagusienetan, ikaragarriko abiaduran zabaldu eta denbora errekorrean hegemonia musikal berria osatu arte. Punk mugimendua euskal gizartea belarrondoko zaratatsu batez eguneratu zuen, eta nahiz eta gutxi iraun, haren ordainak eta orbainak gaurdaino soma daitezke. Baina eragindako katarsien gainera, Rock Radikal Vasco irekitako ateak hamarkada bat beranduago entzungo zen musika estiloen, eraginen, diskurtsoen eta, zergatik ez, desioen biderkatze nabarmena eragin zuen.

Nazioarteko rock talde garrantzitsuak Bilbo, Iruñea edo Donostian kontzertuak ematen hasten dira.

Cassette-a behin betiko onartzen da eta honekin batera euskarri musikalen auto-ekoizpena.

Muskaria musika aldizkariaren argitalpena. (1980-1987)

Komunikabide ofizialen komertzializazio progresiboari erantzunez, euskal geografia osoan zehar irrati librez osatutako sare ikaragarria sortzen da.

EITB-Euskal Irrati Telebistaren sorrera. (1982)

Egin Rock jaialdiaren lehen edizioa. (1984)

Herri Batasunak "Martxa eta borroka" kanpaina abian jartzen du. (1985)

1988-1997

Punk mugimendua, aurrerantzean eta behin-betiko Rock Radikal Vasco izenpean gogoratuko denak, bolbora (eta kide mordo bat bidean) galtzen zuen bitartean, euskal rocka estilistikoki aberasten joan zen, bere diskurtsoa garai berrietara egokituz. Antibirtuositatearen soinua kanon bihurtu zen heinean, punka etxekotzen eta indarra galtzen hasi zen, eta ondorioz musika konformagaitzak forma berriak hartu zituen: hardcorea (punkaren oinordeko naturala), metala (material, teknika eta tresnen hobekuntzaren arabera), post-punka, Frantziako eta mundu anglosaxoiko eragina zuen pop musika, edo, beharbada kasu guztien artean estilistikoki erradikalena, punkaren inkonformismoarekin oihartzun egin nahi zuen rap musika. Euskal tradizioan oinarritutako musika adierazpe- nek ere beraien diskurtsoak eguneratu zituzten, esate baterako, trikitixaren edo euskaraz abestutako pop musikaren boom komertziala eraginez. 90eko hamarkadaren hasieran, beste leherketa musikal garrantzitsuak gertatu ziren, modu nabarmenean Donostian eta Getxon, eta beharbada lotsatiagoan, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, Tolosan, Andoainen, Hondarribian, Gasteizen, Eibarren edo Lapurdin. Euskal Herrian egindako musikak inoiz entzun gabeko dibertsifikazio eta ugaritze handiena izan zen.

Gaztetxeak kultura lokalen sare gisa ezartzen dira.

Kortatu taldearen azken kontzertua. (1988)

"Todos contra el miedo" jaialdia, Donostian. (1989)

Donosti Sound etiketa onartzen da.

Bilbao Hiria Pop-Rock lehiaketaren lehen edizioa. (1989)

El Tubo musika aldizkariaren sorrera. (1989)

CDa iritsi eta ia-ia biniloa desagerrarazten du.

Erromeria eguneratu eta rock-erromerian bihurtzen da.

Euskadi Gaztea irrati formularen sorrera. (1990)

Musika elektronikoa diskoteka eta dantza klubetan zabaltzen da.


Getxo Sound mugimenduen lehen oihartzunak entzuten dira.

Bidasoako Soinua garatzen da.

Kafe Antzokia eredu sortzen da. (1995)

Entzun! euskarazko musika aldizkariaren sorrera. (1996)

Hatortxu rock jaialdiaren lehen edizioa. (1997)



1998-2007

Ekoizpenaren ikuspegitik euskal musikak goraka egiten jarraitzen du. Argitaratutako diskoen kantitateak errekorra hautsi zituen eta kontzertuak geografia osoan zehar ugaritzen joan ziren. Zenbait hiriburuk atzerriko artisten presentzia bertakoaren aurrean lehenesten duten jaialdi eta makro-jaialdien aldeko apustu arriskutsuak egin zituzten. Musika oro ikuskizun bihurtzeko eta musikaren kontsumoa turismoaren logikaren barnean kokatzeko saiakerak dira asko. Bertako eszenarentzako alternatiba egonkorra eskaintze aldera, Bilboko Kafe Antzokia eredu gisara hartuz, formatu txiki edo ertaineko espazioak ugaritzen hasi ziren, gaztetxeek egin bezala, urte gutxitan musikari eskaintako espazioen sare nagusia berregituratuz. Gaztetxeak ere ez ziren atzean geratu, ordea, eta, Bonberenea-ren (Tolosa) edo Matadeixe-n (Azkoitia) kasuetan bezala, ekoizpen leku bihurtu ziren. Aldi berean, musika praktika arriskutsuak eta minoritarioak bultzatzeko balio izan zuten soinu esperimenduzkoaren zuzeneko leku berriak sortu ziren, horien artean nabarmen Donostiako Artelekuk proposatutakoa.

Interneten iritsierak musika modu digitalean banatzea eragiten du.

Elektronikaldia Jaialdia, Donostia. (1999-2004)

Makro-jaialdien aroa hasten da: EH zuzenean, BBK Live, Jazzaldia (eguneraketa), Azkena Rock, Kobetasonik, Hatortxu...

Ertz, Bertze Musiken Jaialdia hasten da Beran (Nafarroa). (2000)

Bilboko MEM Jaialdiaren lehen edizioa. (2002)

Audiolab, Arteleku soinu laborategia, Donostia. (2002-2014)

Teknologia digitalak musika ekoizteko moduak kolonizatzen ditu.

Hil baino bi urte lehenago, Mikel Laboak Bob Dylanen saioa irekitzen du Donostiako Bakearen Aldeko Kontzertuan. (2006)

2008-2018

ETAren aktibitatearen amaierak ekarritako egonkortasun sozialak eta ondorioz erakraren turistiko masiboan oinarritutako eredu arrakastatsuen egonkortzeak markatutako joera globalizatzailearen zurrumbiloi buru-belarri sartuta, Euskal Herriko musika eszenak osasuntsu jarraitzen du, ez ordea nostalgiarik gabe. Sentipen kolektiboarekin bat egingo duten eta, 60ko, 80ko edo 90eko hamarkadetan gertatu bezala, lurra astintzeko gaitasuna duten mugimenduekiko umezurtz, gaur egungo eszenak ekoizteko eta erakusteko moduak baldintzatzen dituen nolabait erositutasunaren eta kanpotik datozen musiken eragin indartsuen artean dantzan jarraitzen du. Jada, kultura-errealitatean guztiz txertatutako makro ereduak areto txikiekin, gogor eusten dioten gaztetxe gutxi batzuekin eta kultur etxe sare zabal batekin bizi dira. Musika eskaintza ikaragarri zabala da, mugimendu, eszena edo estiloetan pentsatzea zail bihurtu arte. Sare bidezko kontsumoak eragindako azelerazioak identifikazioa zailtzen du eta kontsumo iraungikorra indartu, inoiz baino musika gehiago entzuten den arren, honek gizartean duen eragina apalduz. Emakume artisten presentzia esponontzialki hazten doa musika eszenari aire berriak emanez.

Artista askok atzerriko ekoizleekin grabatzen eta argitaratzen dute, beren soinua aldatuz.

Belaunaldietako ereserkien garaia amaitzen da.

Lan handiz mende berriko kaleko musikek oin hartzen dute.

Makro-jaialdien aroak jarraitzen du: Azkena, BBK, EHZ... jaialdiek urteak betetzen dituzte.

Euskarri fisikoa galzorian dagoenean, biniloa itzultzen da.

Rock musika eragina galtzen hasten da musika arinagoen alde.

IZENDEGIA

Txalaparta

60ko hamarkadan berreskuratutako baserri munduko perkusio tresna, hein handi batean (Oteizari esker gehienbat) musikaren arloan euskal esentzia irudikatu duena. Bere sonoritate inarmoniko eta aldi berean ikaragarri dinamikokoak oso tresna berezia

bihurtu du txalaparta. Denborarekin musika tresna hau euskal musikaren sinbolo bihurtu da. Izen abizenak: *Arza anaiak, Juan Mari Beltran, Andoni Aleman, Oreka TX, Kepa Junkera.*

Ez dok amairu

Euskararen erabilera eta iruditeria kultur garaikidean txertatzeko helburuarekin 60ko hamarkadan Gipuzkoan sortutako kultura mugimendua. Estilo klasikoko kantu-egileak, tradizioen berreskuratzaileak eta artista berritzaileak bildu zituen bere baitan, eta hain zuzen horrek eman zion mugimenduari bere izaera estetiko berezia eta mezua gizartean txertatzeko erraztasuna. Izen abizenak: *Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lourdes Iriondo.*

Rock Radikal Vasco

80ko hamarkada hasieran euskal geografia guztian agertu ziren punk-rock taldeak batzen dituen etiketa. Soinu indartsuz, "egin ezazu zeuk" filosofiaz eta mezu probokatzailez kargatua, haren inpaktua katartikoa izan zen, iraupena aldiz motza. Ezinbesteko garrantzia izan zuen euskal musikari atzerriko musiken leihoak eta eragin eta adierazpide berriak irekitzeko orduan. Izen abizenak: *Pablo Cabeza, Vulpess, Fermin Muguruza, Hertzainak, Eskorbuto, La Polla Records.*

Donosti Sound

80ko hamarkadan Gipuzkoako hiriburuan hasitako musika eszena, gaur, oso modu eklektikoan bada ere, bizirik jarraitzen duena. Haren hastapenetan eta RRVaren leherketaren aurrean, proposamen estetiko guztiz erradikala jarri zuten mahai gainean mugimendua osatu zuten taldeek, pop anglosaxoiaren, frantsesaren eta nolabaiteko indie jarreraren eraginpean. Izen abizenak: *Duncan Dhu, Puskerra, La Buena Vida, Ibon Errazkin, La Oreja de Van Gogh.*

Triki-pop

Trikitixarekin egindako musika tradizionala pop musikarekin nahastuz 90eko hamarkadan sortutako musika estiloa. Triki-pop musikak, bereziki hiriburuetatik at, herri txikietak berbena eta erromeriaren kontzeptua eguneratu zuen. Izen abizenak: *Joseba Tapia, Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider, Iker Goenaga, Gozategi.*

Getxo Sound

90eko hamarkadako noise-rock musikaren eragin nabarmenarekin Nerbioi ibaiaren eskuinaldean sortutako hainbat talde biltzen dituen musika mugimendua. Melodikoak bezain zaratzatuak. Izen abizenak: *Los Clavos, El Inquilino Comunista, Lord Sickness, Cancer Moon.*

Bidasoako Soinua

Getxo Soundaren ildo antzekoan baina euskal geografiaren antipodetan, Bidasoa aldean, Irunen, Hondarribian eta Beran, sonoritate bereziko artistak agertzen hasten dira. Nagusiki Ipar Amerikako rock musika alternatiboen eraginarekin, hasieran zaila zen musikak poliki-poliki eragin nabarmena izango du hurrengo belaunaldiek rock musika ulertzeko moduan. Izen abizenak: *Dut, Lisabö, Borrokan, Noise Hole, Petti, Beti Mugan, Orgasmic Toothpicks.*

Diskoetxeak

Euskal Herriko diskogintzan diskoetxeek ezinbesteko papera jokatu zuten musika mugimendua egituratzeko orduan, bereziki 90eko hamarkadaren amaiera arte. Izen abizenak: *Elkar, Herri Gogoa, Esan Ozenki, Gor, Discos Suicidas, Bidehuts.*

1968 Lourdes Iriondo - Kanta zaharrak - Belter - *Minach* **1968 Estitxu ta Daikiris** - Estitxu ta Daikiris - Cinsa - (?) **1968 Francisco Escudero** - Zigor (Ópera en 4 actos) - Phillips - (?) **1968 Arza anaiak** - Txalaparta - Herri Gogoa / Edigsa - (?) **1968 Pedro Iturralde** - Jazz flamenco 2 - Hispavox - *Ontañón* **1969 Erlak bikotea** - Erlak bikotea - Cinsa - Willy Koch **1969 Josán Lertxundi** - Isturizetik Tolosan barru - Autoed. - *Joxean Artze* **1969 Luis Mariano** - Canta en vasco - Odeón - (?) **1969 Benito Lertxundi** - Benito Lertxundi - Herri Gogoa / Edigsa - *Jose Mari Zabala* **1969 Michel Etxegaray (Imanol)** - Batzuek Beste Batzuek Eta Abar... - Goiztiri - O.P. **1970 Guk, Pantxoa eta Peio** - Lepoan hartu ta segi aurrera - Dizkola - (?) **1970 Luis de Pablo** - We (Nosotros) - Clave - (?) **1970 Naikari** - Naikari - Cinsa - *Patxi Iriceta* **1971 Zenbait egile** - Herri musika sorta - Edigsa - Santos Echeverría **1971 Zenbait egile** - Antología coral vasca: Padre Donostia - Usandizaga - *Casimiro Baragaña* **1971 Jon Enbeita** - Jon Enbeita - Cinsa - (?) **1971 S. Fischer** - Akelarre sorta - Herri Gogoa / Edigsa - (?) **1971/73 Zenbait egile** - Gaurko musika 2 - Cinsa - (?) **1972 William S. Fischer** - Akelarre sorta - Herri Gogoa / Edigsa - (?) **1973 Mocedades** - Mocedades 4 - Novola - *Pedro Antonio Martínez Parra* **1973 Zenbait egile** - Euskal Musikalarien Uhin berria - Herri Gogoa / Edigsa - *Martín Romero* **1973 Shegundo Galarza** - Akelarre sorta BI - Herri Gogoa / Edigsa - *Félix Garrido* **1974 Mikel Laboa** - Bat-hiru - Herri Gogoa / Edigsa - *José Luis Zumeta* **1975 Errobi** - Errobi - Herri Gogoa / Edigsa - *Bizar Beltza (Patrice Rouleau)* **1975 Arza anaiak** - Txalaparta 75 - Cramps Records - *a.sa sas, Roberto Masotti* **1975 Pantxoa eta Peio** - Peio/Pantxoa - Herri Gogoa / Edigsa - *Félix Garrido* **1975 Tomás Aragüés** - Elektronikan - Herri Gogoa / Edigsa - (?) **1976 Imanol** - Herriak ez du barkatuko - Le Chant du monde - *Agustín Ibarrola* **1976 Xabier Gereño** - Método de Euskara - Cinsa - (?) **1976 Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon** - Kixki ta Mixki ta Kaxkamelon - Herri Gogoa / Edigsa - (?) **1976 Chomin del Regato** - ¡Ja! ¡Ja! ¡Ja! vasco-navarro con Chomin del Regato - Hispavox / Clave - (?) **1977 Haizea** - Haizea - Herri Gogoa / Ots - *Jon Zabaleta* **1977 Zenbait egile** - Erriaren arnasa: Txistu doñuak - Satsa - (?) **1977 Urko** - Sakonki maite zaitut Euskal-Herria - Zafiro - *José Manuel Horna* **1977 Xalbador** - Herria eta hizkuntza - Elkar - *Daniel Vélez* **1978 Los Cinco Bilbainos** - Bilbao en fiestas - CBS - (?) **1978 Zenbait egile** - Bai Euskarari! - (?) - *Néstor Basterretxea* **1978 Eider** - Herri bat sortu zen - Zafiro - *Saez* **1979 Leon, Maurizio, Fasio** - Alboka eta trikitixa - Xoxoa - *Xabi Otero* **1979 Niko Etxart** - Nahasteka - Movieplay - (?) **1979 Errobi** - Ametsaren bidea - Xoxoa - *Jan Pierre Artola* **1979 Fanfarre "Xut"** - Fanfarre Xut - Xoxoa - *David Abajo Fernández* **1980 Ruper Ordorika** - Hautsi da anphora - Xoxoa - *Juan Carlos Eguillor* **1980 Oskorri** - Plazarik plaza - Xoxoa - *Bittor Allende* **1980 Imanol Urbieto** - Xixupika 1: Psikofonia - Xoxoa - *J. I. Gurrutzaga* **1980 Orquesta Mondragón** - Bon voyage - EMI - *Fernando Glez. de Canales* **1980 Anónimo (Línea Táctica)** - Euskalduna - Autoed. - *Luis Terán* **1981 Benito Lertxundi** - Altabizkar / Itzaltzuko bardoari - Elkar - *Ángel Etxebarria, Eladio Jimeno, Fermín Leizaola* **1981 Zenbait egile** - Iparragirre, Zure oroz - Xoxoa - *Kike Gómez de Segura, Patxi Bilbao* **1982 Akelarre** - Gau pasa - IZ - *Kask estudioa* **1982 Zenbait egile** - Gipuzkoa Star 82 - IZ - (?) **1983 Vulpess** - Me gusta ser una zorra - Dos Rombos Discos - *T. Yagüe, J.A. Moreno* **1983 Félix Ibarrondo** - Sino, Odolez, Zoro Dantzak, Argiruntz - Harmonia Mundi - *Sergio de Castro, Marc Tigrane* **1983 Itoiz** - Musikaz blai - Elkar - *Etxarte* **1984 Hertzainak** - Hertzainak - Soinua - Santos Iñurieta, *Simónides* **1984 R.I.P., Eskorbuto** - Zona especial norte - Spansuls Records - *May, Perico* **1984 Lavabos Iturriaga** - Lavabos Iturriaga - Discos Suicidas - *Ricardo Catania, Iñaki Astigarraga, Patxi Amezaga* **1984 Barricada** - Barrio conflictivo - Oihuka - *Manolo Gil* **1984 Ángeles del Infierno** - Pacto con el diablo - WEA - *Rufino Vigil* **1984 La Polla Records** - Salve - Oihuka - *Txabi Oñeka* **1985 Eskorbuto** - Anti-todo - Discos Suicidas - *Clara Expósito, Pablo Cabeza* **1985 Zenbait egile** - Kortatu / Cicatriz / Jotakie / Kontuz hi! - Soinua - *Anjel Arbe* **1985 Kortatu** - Kortatu - Soinua - *Makoki, Txabi* **1985 Zenbait egile** - Euskal Herriko soinu tresnak - Kea - *Kask estudioa* **1985 Gata** - Cabezas calientes - Discos Victoria - *Mario Bregaña, Santos Bregaña* **1985 Txirri, Mirri eta Txiribiton** - Tortolika - IZ - *Iñaki Eizagirre* **1986 Duncan Dhu** - Canciones - GASA - *Duncan Dhu* **1986 Potato, Tijuana in Blue** - Potato, Tijuana in Blue - Soñua - *Antón* **1986 Andoni Aleman, Jesus Artze** - Txalaparta - Elkar - *Andoni Aleman* **1987 Zarama** - Dena ongí dabil - Elkar - *Roberto* **1987 Ruido de Rabia / UG** - Eros versus Thanatos / UG - Autoed. - (?) **1987 R.I.P.** - No te muevas - Basati Diskak - *Kopi* **1987 Zenbait egile** - Bat, bi, hiru... hamar - Oihuka - *Manolo Gil* **1988 Kortatu** - Azken guda dantza - Nola! - *Manolo Gil* **1988 Zenbait egile** - Descarga norte - Discos Suicidas - *Arte Nativa, Beatriz Silva* **1988 MCD** - Jódete - Basati Diskak - *MCD* **1988 Mikel Laboa** - Lekeitoiak - Elkar - *José Luis Zumeta* **1989 M-ak** - Barkatu ama - IZ - *Anjel Katarain* **1989 21 Japonesas** - Hombre de la selva - Nola! / Island - *Jose Mari Zabala, Txabi Oñeka* **1989 Aventuras de Kirlian** - Aventuras de Kirlian - DRO - *Javier Aramburu* **1990 Tapia eta Leturia** - Juergasmoan - Elkar - *Xabi Otero* **1990 Negu Gorriak** - Negu Gorriak - Oihuka - *Manolo Gil* **1990 Zenbait egile** - Txeroke: Mikel Laboaren kantak - IZ - *José Luis Zumeta* **1990 Estigia** - Insubmision - Momentos Trashicos - *Iñaki Rodríguez, Fernando Urquiaga* **1990 Los Clavos** - Días en blanco - Discos Medicinales - *Alejandro Arteché* **1991 Danba** - Esamesaka - Basati Diskak - *Susana Korbella* **1991 Soziedad Alkoholika** - Soziedad Alkoholika - Overdrive - *SA, Marisa Pérez* **1991 La Perrera** - Right side of our minds - Basati Diskak - *Arturo, Txesus* **1991 Sutagar** - Jaiotze basatia - Zarata Diskak - *Manolo Gil* **1991 Los Bichos** - In bitter pink - Elkar - *Josetxo Ezponda* **1992 BAP!** - Zuria beltzez - Basati Diskak - *Susana Rico, José Luis Lanzaqorta* **1992 Platero y Tú** - Muy deficiente - DRO - *Javier Izquierdo, Martín de Galdakano* **1992 El Desván del Macho** - Hermana Violencia - Nuevos Medios - (?) **1992 Vitu's dance, HHH** - Homo Homini Lupus - Fobia Duros Sentimientos - *Pablo López* **1992 Moogy Moogy** - vol. 1 - Oihuka - *Niko* **1992 Negu Gorriak** - Borreroak baditu milaka aurpegi - Esan Ozenki - *Manolo Gil* **1993 El Inquilino Comunista** - El inquilino comunista - Radiation Records - *Les Perriers* **1993 Family** - Un soplo en el corazón - Elefant Records - *Javier Aramburu* **1993 Parafünk** - Parafünk - La Fábrica Magnética - *Jon Izeta, Mc Pez* **1993 La Secta** - It's gonna be a wild weekend - Munster Records - *Gorka Pastor* **1993 Beti Mugan** - Oreak desorekan - Basati Diskak - *Mikel Zabalza* **1993 Sorotan Bele** - Sorotan Bele - Elkar - *Gorka Gorospe* **1993 Lin Ton Taun** - Lin Ton Taun - Esan Ozenki - *Susana Rico, Dani Aizpurua* **1993 Les Mecaniciciens** - Euskadi, jende gutxi - Esan Ozenki - *Jon Zabaleta* **1993 Cancer Moon** - Moor room - Radiation Records - *Josetxo Anitua, E. Basterra* **1993 Lord Sickness** - Ha, ha! - Goo Records - *Laura Eguiluz* **1994 Ama Say** - Say ama - Esan Ozenki - *Aitor Olalde* **1994 J. C. Pérez** - Atlantic river - Elkar - *Manolo Gil* **1994 The Allnighters** - Midnight boogie - Oihuka - *Oriol Rosell, Alejandro Aguayo* **1994 Zenbait egile** - Uderribi - Basati Diskak - *Mikel Zabala* **1995 Tapia eta Leturia Band** - Tapia eta Leturia Band - Elkar - *Iñigo Ordozgoiti* **1995 Yogur** - Ejecutan los estilos - Acuarela Discos - *Olaf* **1995 Gozategi** - Gozategi - Elkar - *Iñigo Ordozgoiti* **1995 Jabier Muguruza** - Aise - Elkar - *Islada* **1995 Doctor Deseo** - Gotas de dolor... un charco de olvido - Discos Suicidas - *Alberto Lomas, Javi Psycho* **1996 Dut** - at - Esan Ozenki - *Dut, Garikoitz Garaialde* **1996 Madelman** - Palais - Cosmos Records - *Madelman, Mr. Ciencia* **1997 La Buena Vida** - Soidemersol - Siesta Records - *Javier Aramburu*

1997 Bitoriano Gandiaga - Ahotsik behartu gabe - Erein - Iturri. Argazkia: Miel Anjel Elustondo

1997 Gutural - Arrikpaen nektirno - Autoed. - *gutuigon, clubdead, imazral* **1997 Basque Dub Foundation** - Sustraidun roots dub - Massive Records - Ángel Hernández **1997 Voodoo**

Muzak - Heart warming splinters - Amanita Records - Bolino **1997 Josanton Artze**

"Hartzut" - Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat - Enixe Records - Mikel Garai **1998 Akauzazte** - Ur gardenak - Esan Ozenki -

Xabier Ubeda **1998 Maixa eta Ixiar** - Solasin - Elkar - Itziar Irastorza, Raket

Salinas **1998 Kepa Junkera** - Bilbao 00:00h - Resistencia - (?) **1999 Skalarriak**

- Klub Ska - Gor - Rocco, Joseba Beramendi **1999 Bide Ertzean** - Zure minari -

Gaztelupeko Hotsak - Garbiñe Ubeda **1999 Zenbait egile** - Hotsaren espazioa,

begiradaren denbora - KM - Javier López Altuna **2000 La Oreja de Van Gogh**

- El viaje de Copperpot - Epic - Estudio Lanzagorta, Ricky Dávila **2000 Beñat**

Achiary - Leitzia larrea - Agorila - Isabel Azkarate **2000 Etxahun Iruri** -

Etxahun Iruri: 1907-1979 - Elkar - Juanma Aramendi. Argazkia: Pierre Uday **2000**

Zenbait egile - Euskarazko lehen soinua (1900) - Eusko Ikaskuntza - (?) **2000**

Anari - Habiak - Esan Ozenki - Mikel Abrego, Eneko Abrego **2000 Selekta**

kolektiboa - Selekta kolektiboa - Esan Ozenki - Aritz Usandizaga, Joseba Ponce

2001 Xabier Lete - Berrehun urtez bertsoan - Elkar - Juanma Arimendi, Ainhoa Lukas

2001 Kuraia - Kuraia - Metak - Metart, Galder Izagirre **2001 Camping gaz & digi random** - Blü -

Novophonic - Txarly Brown **2001 OrekaTX** - Quercus endorphina - Elkarlanean - Unai Molina **2001 Joseba Tapia** - Agur Intxorta

maite - Gaztelupeko Hotsak - Mel Mardaraz **2001 Café Teatro** - Café Teatro - Amanita Records - Álvaro Aguirre **2002 Mattin** -

Sakada - w.m-o/r - Mattin **2002 Zenbait egile** - Oztopo guztien gainetik - Bonberenea Ekintzak - Martin Parr, Xabier Ubeda **2002**

Xabier Montoia - Ni ez naiz Xabier Montoia - Metak - Xabier Ubeda **2002 Makala** - Makala plays Novophonic - Novophonic -

Txarly Brown **2003 Maddi Oihenart & Josetxo Goia-Arribere** - Ilhargi min - Metak - Pedro Salaberri **2003 Atom Rhumba** - Backbone

ritmo - Munster - Karramarro **2003 Rudolf Trebisch** - Basque recordings, 1913 - Phonogrammarchiv - (?) **2003 Audience** - Second

handed - Noizpop - Igor Zorrotza **2004 Do** - Tokian tokiko - Lucky Kitchen - Alejandra Salinas, Aeron Bergman **2004 Bad Sound**

System - Buiaka - Metak - Asier Sargento Gartzia **2004 Chico y Chica** - Status - Astrohúngaro - Euskal Dime & Dime Catalonia, L.

Mallow, J. M. Euba, R. Manfredy **2004 Karkaba** - Karkaba - Karkaba / Tutti Pazzi / Venganza Crust - Francisco J. Aranda, Elena **2004**

Zenbait egile, Alan Lomax - The Spanish recordings: Basque Country. Biscay and Guipuzcoa - Rounder Records - J-Sylvester

2004 Zenbait egile, Alan Lomax - The Spanish recordings: Basque Country. Navarre - Rounder Records - J-Sylvester **2005 Berri**

Txarrak - Jaio. Musika. Hil - Gor - Aitor Goñi **2005 Oier Etxeberria** - C14 - Autoed. - Oier Etxeberria **2005 Mikel Laboa** - Xoriek 17 -

Elkar - José Luis Zumeta **2005 Pirritx eta Porrotx** - Maite zaitut - Katxiporreta - Julen Tokero **2005 Tzesne** - One side and other of the

door - Series Negras - Ghetto creativo **2005 Gojira** - From Mars to Sirius - Mon Slip / Gabriel Editions - Joe Duplantier **2006 Zenbait**

egile, Makala - Makala Selects Boom Shaka Laka - Malandros / EITB - Txarly Brown **2006 Atanas Akerstra** - Atanas Akerstra -

Autoed. - Roge Astigarraga **2006 Pascal Gaigne** - Azul oscuro casi negro BSO - JMB - (?) **2006 Elkano Browning Cream** - Elkano

Browning Cream - Mamusik - David Navascués **2007 Maddi Oihenart** - Ezlekuak - Bidehuts - Ciega, Pellucetti **2007 Borrokan** -

Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke. Oraintxe! - Autoed. - Unai Ruiz **2007 O ensemble** - Music of wheel - Creative Sources

- Joao Silva **2007 Zenbait egile** - Lancemos, irresponsables, los dados - Hamaika - (?) **2007 Le Garazi Philanthropik(e) Orkestra** -

Musiques D'intérieur - Amanita - Sébastien Lasserre **2008 Billy Bao** - May'08 - Parts Unknown - Mattin **2008 El Culpomio Aseina**

- La gallina - Astro - (?) **2008 Gora Japon** - Gora Japon - Bidehuts - Gora Japon **2009 Ramon Lazkano** - Hauskor. Ortzí Isilak.

Ilunkor - Kairos - Gabi Hauser, Jakob Gasteiger **2009 Juan Mari Beltran** - Txalaparta - NO-CD Rekords - Txomin Rivera, Eurosintesis

global **2009 Alos Quartet** - 10 tanta - NO-CD Rekords - Iñigo Royo, Baxi Ubeda **2010 Loty Negarti** - Réquiem for revolution - Free

Software series - Mattin **2010 Ornitorrinkus** - Ornitorrinkus - Autoed. - Jose Belmonte, Xabier Gantzarain **2010 Delorean** - Subiza -

Mushroom Pillow - Callan Clendenin, Tim Saputo **2010 Oier i.a.** - Untitled - Ixi label - Estanislao Comella **2010 Mixel Etxekopar &**

François Rosse - Trashumantzia - Elkar - Gonzalo Etxebarria, Lorea Uribe Etxebarria **2011 Xabier Lete** - Zuzenean 1999. Azken

kontzertua - A&M - Juanma Aramendi, Ikor Kotx **2011 We are Standard** - Great State - Mushroom Pillow - Adolfo González, Labton

2011 Ainara Legardon - We once wished - Aloud Music - Rafael Jaramillo **2012 Joserra Senperena** - 10 trio piano, biolin eta

akordeoirako - Gaztelupeko Hotsak - Estudio Lanzagorta **2012 Revolutionary Brothers** - So much songs to play - IndaGlory Studios

- Triplevdoble **2012 Anai arrebak** - Anai arrebak - Bonberenea Ekintzak - Ane Baztarrika **2013 Mursego** - Hiru - Bidehuts - Ramon. M.

Zabalegi **2013 Miguel A. Garcia** - La axacra - Autoed. - Raúl Domínguez **2013 Sigma Project** - Utopias - Sigma Records - David

Gotxioa **2013 Iñigo Ugarteburu** - For the unknown - Talo Recordings - Graig Stewart **2013 Neighbour** - Ura patrikan - Gaztelupeko

Hotsak - Akiko Wakabayashi **2013 Josu Okiñena** - Aita Donostia - Sony - Oficina tresminutos **2013 Myriam Aizager** - Ni nüzü -

ARTegia - Agnès Beuneux **2014 Joseba Irazoki eta Lagunak** - Joseba Irazoki eta lagunak - Bidehuts - Ramón M. Zabalegi **2014 El**

Txf-a - We walked home together - Fiakun - Jon Barandika **2014 Ruper Ordorika** - Lurrean etzanda - Elkar - Oskar Alegria **2015**

Rafael Berrio - Paradoja - Warner - (?) **2015 Euskal Barrok ensemble** - Euskal Antiquva - Alis Vox - Eduardo Néstor Gómez **2015**

Khantoria - Klabezinbaloa lagunduz - Bapo Bapo - Miguel Sánchez Lindo **2015 Tulsa** - La calma chicha - Gran Derby Records - Juan

de la Rica **2015 Belize** - Belize - Warner - Luis Toledo **2015 La Basu** - Aire es vida - Taupaka - N. Arruabarrena **2016 Belako** - Hamen -

Mushroom Pillow - Iñaki Billelabeitia Bengoa **2016 Elena Setién** - Dreaming of earthly things - Enja / Yellowbird - Allan Dastrup.

Argazkia: Pablo Axpe **2016 Mikel R. Nieto** - Dark sound - Gruenrekorder - Mikel R. Nieto, Miguel Ayesa, Sonia Ciriza **2016 Amorante** -


Amorante - Autoed. - Alaitz Alberdi, Joseba Agirrezabalaga, Rafa Rodrigo, Josune Galartza **2016 Alberto Iglesias** - Archipiélago - AI

Music / Quartet Records - Nacho B. Govantes **2017 Cabezafuego** - Somos droga - Color Hits Discos / Outsider Comics - Olaf **2017**

Zuriñe F. Gerenabarrena - Zuriñe F. Gerenabarrena - Sinkro - Naiel Ibarrola **2017 Kaskezur** - Azpisugeak - Mukuuru Records - Juan

Angel Perotxena, Malmö Illustration & Design **2017 Mice** - Mice - Autoed. - Mikel Larratxe **2018 Endikah & Sceno** - Involución - Boa

Sceno, Iván Blanco



110
URTE AÑOS

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

50
urte/años
energiaz/con energía
Petronor

Laguntzailea:  **Eresbil**